

## UPV/EHUko Letren Fakultateko irakaskuntza egokitzeko plana eguneratzea (2021eko urriaren 8a)

Letren Fakultateko kide guztiei 2021eko irailaren 30ean bidalitako idatzian esaten zen moduan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuaren eta EAeko unibertsitate guztien bileraren ostean erabaki zen presentzialtasun osora itzultzea. Gure fakultatearen kasuan, urriaren 13tik aurrera izango da.

Hori dela eta, Irakaskuntzaren Jarraipen Batzordeak eta Campus arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeak *Irakaskuntza eta Ikaskuntza Planifikatzeko Orientabideak (2021-2022)* dokumentua eta UPV/EHUko ikastegiaren funtzionamendurako neurriak eguneratu zituzten: 1. eranskina eta 3. eranskina, hurrenez hurren. Eguneratze horien ondorioz, eguneratu egin behar izan da *Letren Fakultateko irakaskuntza egokitzeko plana* (<https://www.ehu.es/eu/web/letren-fakultatea/irakaskuntza-egokitzeko-plana>).

Hauek dira aipatutako planean egin diren aldaketak:

- Irakaskuntza presentziala izango da % 100ean 2021eko urriaren 13tik aurrera (asteazkena).
- Ikasgeletara sartzeko eta ikasgeletatik irteteko ordutegia ez da izango mailakatua. Eskola guztiak ordu puntuak hasiko dira eta hamar gutxitan bukatu.
- Urriaren 11tik aurrera GAUR aplikazioan egongo dira ikusgai urriaren 13tik aurrera eskolak emateko esleitutako ikasgelak, hau da, presentzialtasuna % 100ekoa izango denean. Ordura arte, oraingo ikasgelak erabiliko dira. Dena den, arazoak egon daitezke ikasgelak esleitzean eta, horregatik, pazientzia eta ulerkorrak izatea eskatzen dizuegu. Arazoak konpontzeko, arloaren arduradunarekin jarri behar zarete harremanetan, Guillermo Ibeasekin ([guillermo.ibeas@ehu.es](mailto:guillermo.ibeas@ehu.es)).
- Irakasleek Webex plataformaren bidez emango dituzte eskolak urriaren 31ra arte, ostatu kontuak, garraioa eta abar berrantolatu behar dituzten ikasleek horretarako denbora izan dezaten.
- 2021eko azaroaren 2tik aurrera (asteartea), Webex plataformaren bidez emango diren eskola bimodalak Covid-19ak eragindako ikasleentzat baino ez dira izango, betiere ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzak baimena eman ondoren.
- Prebentzio Zerbitzuak baimena eman ahal izango die irakasleei eskolak Webex plataformaren bidez ematen jarraitzeko, beren osasun egoerak hala gomendatzen duenean (2. eranskina).
- Tutoretza saioak bulegoan egingo dira modu presentzialesan (2. eranskina).  
Ordua alde aurretik adostea gomendatzen da, jendea korridoreetan pilatu ez dadin.
- Diadema motako mikrofonoak dituzten IRlek atezainei itzuli beharko dizkiete azaroaren 2tik aurrera.
- Epe berezi bat irekiko da matrikulan aldaketak egin nahi dituzten ikasle guztientzat, 2021eko urriaren 13tik 15era bitartekoa, egun biak barne.
- Segurtasun, higiene eta osasun neurrietarako, 3. eranskinari jarraituko zaio. Dena den, Letren Fakultateari dagokionez, honako hauek azpimarratu nahi ditugu:
  - Maskara une oro erabili beharko da, eta gogoratu edukiontzi bereziak daudela maskarak botatzeko.
  - Ikasgeletako leihoak irekita egon beharko dira, ondo aireztatzeko. Laborategiak aireztatzeko, berriz, jarraibide espezifikoak daude.

- IRlek teklatua eta arratoia desinfektatu beharko dituzte, ikasgeletan egongo den fungizida erabilia. Ez bota fungizida zuzenean teklaturan, ikasgelan egongo den paper zapien baino.
- Eraikinetako eta ikasgeletako sarreretan egongo den gel hidroalkoholikoa erabiltzen jarraitu behar da.
- Fakultateko erakinetako joan-etorrietarako gezi berde eta horien norabideei jarraituko zaie. Hau da, eskuin aldetik ibiltzen saiatuko gara beti
- Ikasgeletan dauden Covid-19ari buruzko seinaleak kendu egingo dira (edukierak, mahaietako markak...).
- Letren Fakultateko Covid-19 koordinatzailea idazkari akademikoa da eta, protokoloaren arabera, berari jakinarazi behar zaizkio kutsatze kasuak, berrogeialdiak eta abar. ([letrak.fak.covid19@ehu.eus](mailto:letrak.fak.covid19@ehu.eus) edo [covid19.fac.lettras@ehu.eus](mailto:covid19.fac.lettras@ehu.eus)).

Neurri hauek aldatu ahal izango dira, osasun eta hezkuntza agintariek Covid-19aren bilakaeraren arabera hartuko dituzten erabakien arabera.

#### ERANSKINAK:

- 1. ERANSKINA: *2021/2022 ikasturteko irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak* - Eranskina: Erabateko presentzialtasunera itzultzea (2021eko urria): <https://www.ehu.eus/eu/orientaciones-para-la-planificaci%C3%B3n-de-la-ense%C3%B1anza-y-el-aprendizaje1>
- 2. ERANSKINA: Erabakia, 2021eko urriaren 5koa, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearena, jardun akademikoan presentzialtasun osoa berreskuratzeko neurriak ezartzeko dena: <https://www.ehu.eus/documents/3087158/3090657/Reincorporaci%C3%B3n+a+la+actividad+presencia+del+PDI+euskera.pdf/9cae0495-ed32-1bd3-5873-61251c984059?t=1633436402527>
- 3. ERANSKINA: *UPV/EHUko ikastegiaren funtzionamendurako neurriak 2021/2022 ikasturterako* (2021eko irailaren 29an eguneratutako testua): <https://www.ehu.eus/eu/ehuko-ikastegiaren-funtzionamendurako-neurriak>